

1. Gure Balio Proposamena

Zer behar edo arazo konpontzen ditugu?

Salba-Dron-ek larrialdi egoeretan, adibidez istripuak, suteak edo hondamendi naturalak, azkar eta eraginkor jardutea ahalbidetzen du. Askotan denbora galtzen da edo baliabideek lekuetara iristeko arazoak dituzte, eta horrek bizitzak arriskuan jartzen ditu. Gure helburua hori konpontzea da.

Zer bereizten gaitu eta zergatik ordainduko digute bezeroek?

Gure zerbitzua bakarra da merkatuan, eta hori gure indargunea da. Bezeroek ordainduko digute, gure helburua laguntza behar duten pertsonengan zentratzen delako, beraien bizitzak salbatzeko edo egoera hobetzeko. Teknologia aurreratua eta eraginkortasuna eskaintzen ditugu, egoera kritikoetan azkar erantzuteko. Horrek gure zerbitzuak ezberdintzen ditu. Bezeroek gure lanaren balioa aitortzen dute eta konfiantza dute gure emaitzetan.